



## HEZKUNTZAN ALDAKETA IKUSI NAHI DUGU

Nafarroan legegintzaldi osorako lau alderdik sinturiko hitzarmenean – Gobernuak bete behar duena - hezkuntzari dagokion atalean honelako hasiera dago : hezkuntza inbertsioa da, ez da gastua.

Orain arte eztabidaren muin nagusia PAiren moratoria eta ebaluazioa izan da, batez ere komunikabideetan eta alderdien artean. Guk ez dugu moratoriarik ikusi, ezartzea aurreikusita zegoen ikastetxeetan martxan jarri baita, eta nola egingo den ebaluazioa ikusteke dago. Hezkuntza komunitateak, eskola publikoetan eguneroko egoera bizi duenak-ingelesaren irakaskuntzari ematen zaion trataeraz gain, baditu bestelako kezka eta beharrak; eta Kontseilariaren taldeak behar hauek eraginkortasunez eta aldaketarako irizpideak erabiliz asetzen ez dituen sententzia dago.

Mahai sektorialean behin eta berriro ikusi ditugu dinamika zaharrak eta ohiko argumentuak. Kontseilariak negoziatziorako egutegia aurkezteko eskatu zigun sindikatuoi, eta horretan txertatzeko jorratu beharreko gaiak eta honelaxe egin genuen. Gure aldetik, kontseilaria Mahai Sektorialera etortzeko eskatu genuen, eta momentuz ez da horrela izan. Jakin badakigu nekez etortzen ahal dela bilera guztietara, agenda arazoak tarteko, baina horren ondorioz lehengo dinamika bera nagusitzen ari da; kontu teknikoak baino ez dira jorrotzen, eta sindikatuok luzatutako proposamenak ez dira agertzen. Leku-aldatzeak aipu berezia eskatzen du: nahiz eta **steilasek** eta beste sindikatu batzuk eskatu C1 eskaerarekin plazak ez ateratzea ( Ingelesa Ikasteko Programak ebaluatu arte) 160 plaza eskaintzea erabaki dute inolako negoziatziorik gabe.

Mendozak izendatu dituen pertsonak euren iraganaren gatibu dira. Urtetan zehar sindikatuon lana ez dute aintzat hartu, eta, nonbait, ez dakite bestela jokatzeko. Departamentua lasta bota beharrean dago; UPNren politika murriztaileetan, PAI diseinuan, eta LOMCE azkar ezartzeko lan egin duten pertsonak kargugabetu behar diren ustea berresten dugu.

Ordezkapenak egiteko irizpide berriak aldarrikatzen dugunean dirurik ez dagoela erraten digute. Behin eta berriro errepikatzen dute erantzun bera ratioak berrikusteko eskaera luzatzen dugunean – ez baitugu 27 ikasleko talderik ikusi nahi- ; interinoentzako lan baldintza berberak exijitzen ditugunean, edota adinagatiko murrizketak ematen direnean ordezkapenak behar bezala egiteko eskaera mahairatzen dugunean...

Baina hezkuntza politikan dena ez da dirua: borontate irmoa eta argia ezinbestekoa da. Adibideetako bat Lan Eskaintza Publikoaren kudeaketa dugu: horren esperoan milaka pertsona daude; edo sindikatu guztiok luzatu dugun eskaera interinoen zerrenden kudeaketa aldatzeko, 2009 urtean UPNk Agindu Forala inpostu baitzuen langileen ordezkarion kontrako jarrera sendoa kontuan hartu gabe. Gauzak honela, hurrengo Mahai Sektorialean LEPen gaineko informazio hutsa emanen diguten susmoa dugu, negoziazioa baztertuz; eta kontratazio zerrenden kudeaketarako aldaketa proposamenak bazterrean geratuko direla.



[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eu

Langileon lan baldintzak negoziatzen dakien taldea nahi dugu, negoziatu nahi duena, hezkuntza kalitatea hobetzeko; era berean, aurrekontuetan hezkuntzaren lehentasuna nabarmentzen duena, eta horretarako diru nahikoa hornitzen duena. Honelaxe, eta ez bestela, ikusiko dugu euren benetako jarrera, eta argituko digute hezkuntza inbertsioa ote den ala gastua.

STEILASek 11 puntuko dokumentua igorri zion irailean Kontseilariari hezkuntza publikoa hobetzen lagundu nahian. Hemendik gutxira berriro elkartzeko aukera izanen dugulakoan gaude, Departamentuarekin harreman zuzena nahi baitugu, orain arte epaitegien bitartez izan da eta . Bada garaia aditzeko langile interinoekiko diskriminazioa bukatu dela, eta aste santu eta gabonetako egun ez lektiboak finikitotik kentzen ez zaizkiela, udako hilabeteen soldata jaso eta puntuak izateko eskubidea berreskuratzen dutela... Sindikatu guziok bat egiten dugu aldarrikapen hauetan, eta epaitegiek arrazoia eman digute. Buka dezagun, bada, bazterkeriarekin.

Aldaketa ikusi nahi dugu, Mendoza jauna. Ez ahaztu kontseilari postuan zaudela milaka langileren botoei esker , eta aldaketaren alde lan egin dugun taldeoi esker ere bai. Guk benetako aldaketa aldarrikatzen dugu, bestelako politikak egitea posiblea dela uste baitugu, eta hau epe laburrean ikusi nahi dugu.

Kepa Yecora 18203562 M  
Amaia Zubieta 15789779A

Steilaskideak



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba 📞 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus